



m onografikoa argitalpengintza



EUSKARAZKO
LIBURUGINTZARI BURUZKO
AZTERKETA
(LABURPENA)

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	1
FITXA SINOPTIKOA	2
I. HELBURUAK	4
II. EGITURA ETA METODOLOGIA	5
1. Editoreentzako inkesta	6
1.1. Egoera aztertu	6
1.2. Bestelako ikerlanen azterketa.....	6
1.3. Inkestaren edukia.....	7
1.4. Iritzi-bilketa	7
III. EDUKI NAGUSIAK	9
1. Prozesuaren emaitzak	9
1.1. Egoeraren azterketa.....	9
1.2. Editoreentzako inkesta	12
1.3. Iritzi-bilketa	14
1.4. Irakurzaletasuna neurtzeko inkesta.....	16

AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den dokumentuak *Euskarazko liburugintzari buruzko azterketari* buruzko laburpen sintetikoa jasotzen du, Elhuyar Aholkularitzak 2006ean egindakoa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskatuta.

Lan hau, sektoreko ikerlanak egiteko Kulturaren Euskal Planak proposatutako ekintzen inguruan kokatzen da. Zehazki, 7. ardatz estrategikoak liburu, disko eta ikus-entzunezko propioen politika koordinatuak garatzea xedatzen du eta Planak arreta berezia eskaini nahi dio euskarazko produkzioari.

Dokumentu osoa Lakuako Kulturaren Euskal Behatokiko bulegoetan kontsulta daiteke eta ondoko helbidean eska daiteke: kulturabehatokia@ej-gv.es

FITXA SINOPTIKOA (I)

DESKRIBAPENA	
Azterketaren izenburua	Euskarazko liburugintzari buruzko azterketa
Burutu duen erakundea	Elhuyar Aholkularitza
Orrialde kopurua	87
Burutu zen urtea	2006
Inplikaturako sektorea(k)	Argitalpen industria
Aurrekariak	Kulturaren Euskal Planak zehazten dituen ekintzen artean liburu, disko eta ikus-entzunezko propioen politika koordinatuak garatzea proposatzen da arreta berezia eskainiz euskarazko ekoizpenari. Aldi berean, informazio eta jarraipen sistemak garatzeko eta sektoreko diagnostiko eta azterketak burutzeko helburua ezartzen da. Laburtzen den azterketa ekintza horien emaitza da.
Helburuak	<p>Azterketaren helburuak honakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskarazko liburugintzak gaur egun dituen arazoak eta beharrak antzematea • Burututako inkestaren bitartez ahalik eta datu gehien lortzea ziurtatzea, sektoreko eragileak prozesuan inplikatzeari esker • Etorkizunean egoeraren jarraipena burutzeko adierazleak zehaztea • Etorkizuneko ekintza-ildoak buruz gogoeta egitea
METODOLOGIA	
Ikerketa-metodologia	<p>Proiektua antolatzeko hiru foro ezarri ziren: Elhuyar Aholkularitzako lan-taldea, Koordinazio-gunea eta Mahai tekniko bat. Eginkizun nagusiak adierazleak zehaztea eta editoreentzako inkesta diseinatzea izan dira. Jarraitu den metodologiari dagokionez, euskarazko liburugintzaren egoeraren analisi batetik abiatuz (Mahai teknikoak egina), gaiarekin lotutako lanak jaso eta analizatuz (beste azterketa batzuetako adierazleak sailkatuz eta azterketaren helbururako egokienak identifikatuz) inkestaren edukiari eta diseinuari buruzko adostasuna lortu zen.</p> <p>Azterketak, halaber, irakurzaletasunari buruzko inkesta-proposamen bat ere barne hartzen du, behin-behineko zirriborroa da eta eranskin gisa sartzen da.</p> <p>Delphy teknika erabili zen euskarazko liburugintzaren ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak identifikatzeko eta etorkizunera begira zenbait lan-ildo proposatzeko.</p>
Parte-hartzea	Elhuyar Aholkularitza, Kultura Saileko ordezkariak, eragileak eta sektoreko elkarreak
Informazioaren ezaugarriak	<p>Adierazleak: Beste azterketa eta balorazio batzuetako adierazleen zerrendak planteatzen dira, inkesta diseinatzeko helburuarekin</p> <p>Informazioa sailkatzeko ezaugarriak: ekoizpena, sustapena, merkaturatzea eta alderdi ekonomikoa</p> <p>Iturriak: UNESCO, Espainiako Estatistika Institutua (INE), Québec, Torrealdei, Precisa</p>

FITXA SINOPTIKOA (II)

EDUKI NAGUSIAK	
Egitura	<p>Azken txostenak azterketa aurkezten du eta helburuak, antolamendu-egitura eta metodologia planteatzen ditu. Jarraian prozesuaren emaitzak aurkezten ditu; honakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoeraren analisia • Editoreentzako inkesta • Iritzi-bilketa • Liburuak erosteko eta irakurtzeko ohiturei buruzko inkesta <p>Azkenik, lan-prozesu osoan zehar erabilitako eta sortutako materialak jasotzen dituen eranskin-zerrenda bat agertzen da</p>
Ikuspegia	<p>Informazioaren analisia: Analisiaren zeregin nagusia adierazleak zehaztea eta editoreentzako inkesta diseinatzea izan dira</p> <p>Diagnostikoa Delphyaren bitartez burutu da. Informazioa 6 kategoriatan egituratzen da: ekoizpena, merkaturatzea, sustapena, harrera, sektoreko alderdi ekonomikoak eta politika publikoen bilakaera euskarazko liburugintzari dagokionez. Horietako bakoitzean praktikak, beharrak eta arazoak aztertzen dira. Horietatik, indarguneak, ahuleziak, mehatxuak, aukerak, neurriak eta ondorioak eratorzen dira. Aldi berean, Delphy teknikan zehar sortutako adostasun eta desadostasun puntuak ere jasotzen dira. Halaber, talde horietan oinarrituz aztertu beharreko adierazleak jasotzen dira eta adierazle bakoitzaren arabera diagnostikatzen da.</p> <p>Delphyaren ondorioek, etorkizunerako ildo gisa, ondokoa iradokitzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Produktua gehiago dibertsifikatu behar litzateke; haur-gazteentzako eta helduentzako ekoizpena zaindu; uneko best-sellerrak euskaraz argitaratu • Diru-laguntzen gaiak azterketa sakona eskatzen du, liburugintzan duen eragina ezagutu ahal izateko • Epe luzera plangintza estrategiko serio bat behar da; zuzenean inplikaturako eragileen ikuspegiak gerturatzea ere komeni da. <p>Liburuaren Legea sortzea izan daiteke konponbideetako bat</p>
Baliabide bibliografikoak/webgrafikoak	Sektorean garatutako beste ikerlan batzuen web orriak eskaintzen dira, "Beste ikerlanen azterketa" atalean
EMAITZEN ZABALKUNDEA	
Emaitzak jakinarazteko eta argitarazteko sistema/prozesua	Txostena Lakuako Behatokiko bulegoan kontsulta daiteke eta ondoko helbidean eska daiteke: kulturabehatokia@ej-gv.es

I. HELBURUAK

Lan honen eta azterketaren helburu nagusiak ondorengoak dira:

- Euskarazko liburugintzaren gaur egungo arazoak eta premiak detektatzea
- Definitutako adierazleen bidez ahalik eta datu gehien jasoko direla ziurtatzea, sektoreko kide diren eragileak inplikaturako prozesuan
- Etorkizuneko lan-ildoan gainean gogoeta egitea
- Etorkizunean egoeraren segimendua egiteko adierazleak definitzea

Egin beharrekoari dagokionez, besteak beste ezaugarri hauek izan behar ditu lanak:

- Liburugintzaren beharrak identifikatzea
- Aldian behin datuak eguneratzeko adierazleak identifikatzea eta ezartzea. Hau da, urtez urte egoeraren berri emango diguten adierazleak ondo definitzea, arloka, eboluzioa ezagutzeko, segimendua egiteko eta neurri zuzentzaileak proposatu eta abian jarri ahal izateko
- Adierazleek parekotasunak izatea, beste ikerketekiko konparagarri izateko
- Independentea eta sektorearekin adostua izatea. Horretarako sektoreko eta elkarteko eragileen parte-hartzea ezinbestekoa izan da, behar bezalako adierazle-sorta lortzeko
- Euskal liburugintzaren azpisektore guztiak kontuan hartzea (idazle, editore, itzultzaile, saltzaile eta banatzaileez gain, zehar-eragileak ere bai: hezkuntzako arduradunak, liburutegietako arduradunak, Interneteko adituak... ohitura diferenteen berri ere izateko)
- Azterketaren unibertsoa zehaztea. Euskarazko liburugintza izanik aztergai, EAEtik kanpoko produkzioa ere barne hartzea

Lan honen eta azterketaren helburu nagusiak ondorengoak dira: euskarazko liburugintzaren gaur egungo arazoak eta premiak detektatzea, definitutako adierazleen bidez ahalik eta datu gehien jasoko direla ziurtatzea, sektoreko kide diren eragileak inplikaturako prozesuan, etorkizuneko lan-ildoan gainean gogoeta egitea, etorkizunean egoeraren segimendua egiteko adierazleak definitzea

II. EGITURA ETA METODOLOGIA

Prozesu honetan, bilera batzuen eta bestelako lanen bidez, euskal liburugintzaren egoeratik abiatuta, etorkizunean baliagarriak izan litezkeen adierazle nagusiak zehaztu eta etorkizuneko ildoak jaso dira, liburugintza definitzen duten arlo nagusiak aztertuta eta sektorea osatzen duten eragile guztiak kontuan hartuta, bereziki euskal editoreak. Prozesuaren amaierara iritsirik, memoria bat gauzatu da, egindako lanak laburbiltzeko eta gorabehera nagusiak jasotzeko.

2005eko irailean, ondorengo guneak jarri ziren abian:

- **Elhuyar Aholkularitzako lantaldea:** Elhuyar Aholkularitzaren baitan 4 teknikari hasi ziren proiektu honetan lanean.
- **Koordinazio gunea:** partaideak Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko ordezkariak (Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzakoak) eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak izan dira.
- **Mahai teknikoa:** partaideak editoreak, idazleak, itzultzaileak, Administrazioako ordezkariak, Elhuyar Aholkularitzako bideratzaileak izan dira. Funtzioak:
 - ◆ Behin-behineko adierazleak landu eta proposatu
 - ◆ Behin betiko adierazleak landu

Horrela, pisu eta ardura handiagoa eman zitzaion Mahai teknikoaren lanari, bertan biltzekoak baitziren, besteak beste, editore, itzultzaile, idazle eta Administrazioaren ordezkariak.

Hasieratik, lan eta ahaleginak batez ere bi ardatzen inguruan egituratu ziren: editoreentzako inkesta gauzatea eta eztabaida-taldeak abian jartzea, hurrenez hurren.

Nolako inkesta lortu nahi zen kontuan izanik, ondorengo pausoak eman ziren:

1. Orain arte egindako lan eta azterketak (bai Euskal Herrian, bai nazioartean) jaso eta bateratu, alderdi interesgarrienak jasotzeko
2. Euskarazko liburugintzaren egoera aztertu
3. Inkestak jaso beharko lituzkeen puntuetan ados jarri

Horrela, pisu eta ardura handiagoa eman zitzaion Mahai teknikoaren lanari, bertan biltzekoak baitziren, besteak beste, editore, itzultzaile, idazle eta Administrazioaren ordezkariak

1. EDITOREENTZAKO INKESTA

1.1. Egoera aztertu

Mahai teknikoaren bilera batean liburugintzaren egoeraren argazkia egin zen. Mahaikide bakoitzak bere arduraren/jardueraren ikuspegi berezitik begiratuta, euskarazko liburugintzaren praktikak, arazoak eta beharrak identifikatu zituen, sei arlo hauetan:

- Ekoizpena
- Merkaturatzea
- Sustapena
- Harrera
- Sektorearen alderdi ekonomikoa
- Euskarazko liburugintzarekiko politika publikoen bilakabidea

1.2. Bestelako ikerlanen azterketa

Liburugintzaren egoeraren berri izateko, duela urte batzuetatik zenbait azterketa egiten dira, bai Euskal Herrian, baita hemendik kanpo ere, eta logikoena zen hutsetik abiatu beharrean azterketa horiek kontuan izatea lana abiatzean, horietako bakoitzaren alde onez edo interesgarriez baliatzeko. Horretarako, batez ere, azterketa hauek hartu ziren kontuan:

- UNESCOren 1985eko irizpideak
<http://unesdoc.unesco.org/images/0006/000684/068427>
- Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) urteroko azterketa, liburu ekoizpenari buruzkoa
<http://www.ine.es/inebase/cgj/um?M=%2Ft12%Fp401&t0=inebase&tN=&tL0>
- Québec-eko Estatistika Institutuaren urteroko azterketa, liburu-ekoizpenari buruzkoa
http://www.Stat.gouv.qc.ca/donstat/societe/culture/_comnc/livre_biblt/livre/index_an.htm
- Joan Mari Torrealdairen urteroko azterketa, euskal liburugintzari buruzkoa. 2003ko ekoizpenaren azterketa Jakin 146-147 (2005eko urtarrila-apirila)
- Precisa Research enpresaren EAeko liburu ekoizpenari buruzko urteroko azterketa eta irakurketa ohiturei buruzko azterketa

Hasieratik, lan eta ahaleginak batez ere bi ardatzen inguruan egituratu ziren: editoreentzako inkesta gauzatzea eta eztabaida-taldeak abian jartzea, hurrenez hurren

<http://www.editores-euskadi.com/pdf/EdicEuskadi2003.pdf>

http://www.editores-euskadi.com/pdf/informe_Habitos_Lectura%20_2003.pdf

Horrela, taula batean laburbildu ziren azterketotan zer galdetzen zen eta item bakoitzaren bidez zer adierazle lortu nahi zen.

Egoeraren azterketa horretatik abiatuta, unean uneko egoera deskribatuko duten adierazleak ezarri ziren.

1.3. Inkestaren edukia

Egoera edo abiapuntua zein zen zehaztutakoan, erreferentziatzko beste inkesta eta azterketa batzuk kontuan izanik eta etorkizunean egoeraren berri izateko zer adierazle beharrezkoak ziren erabakita, euskarazko liburugintzaren berariazko galdetegiaren edukietan ados jarri ginen Mahai teknikoan, betiere hasieran zehaztutako ezaugarriak kontuan izanda. Horretarako, Mahaikideek, bi taldetan banaturik, adierazleak hiru taldetan sailkatu zituzten: adierazle baliozkoak, ez baliozkoak eta zalantzazkoak. Ondoren, dinamizatzaileek bi proposamenak bakar batean bildu eta behin-behineko inkesta diseinatu zuten. Mahaiko kideek zirriborroa aztertu eta beren ekarpenak egin zituzten, eta horrela lortu zen behin betiko inkesta.

Harrerari zegozkion adierazleekin, Elhuyar Aholkularitzak irakurzaletasunari buruzko inkesta bat diseinatu zuen.

1.4. Iritzi-bilketa

Hasierako proposamenean asmoa zen Mahai teknikoak egindako lana eztabaida-taldeetara eramatea horiek nolabait proposamena berresteko, osatzeko edo zuzentzeko, baita etorkizuneko ildoak lantzeko ere. Talde horiek liburugintzaren azpisektore guztietako partaideekin eta irizpide geografikoa kontuan hartuta antolatu behar ziren.

Zenbait arrazoi zirela medio (adituak elkartzeko zailtasunak, denborak aurrera egitea...), erabaki zen **Delphy teknika** erabiltzea, batik bat hainbat abantaila zituelako eztabaida-taldeekin alderatuta: antolatzeko errazagoa, eta abar.

Teknika hau jarraituz, 18 pertsonako eztabaida-taldea osatu eta kide guztiei galdetegi bat bidali zitzaientzen beraien iritziak jasotzeko asmoz. Talde honetan parte hartu dute: Liburutegietako arduradun eta hezkuntza-ordezkarriak (irakasleak), industriarekin zerikusia daukatenak (banatzaile, saltzaile, azoka-antolatzaile...), kultur arloko kazetari/kritikariak, idazle/itzultzaileak eta editoreak. Lehenengo itzuliko galdetegian euskarazko liburugintzaren indarguneak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak definitzea eskatu zitzaientzen.

Taula batean laburbildu ziren azterketotan zer galdetzen zen eta item bakoitzaren bidez zer adierazle lortu nahi zen

Guztira, hiru informazio-itzuli egin ziren. Jasotako erantzunak dokumentu batean bateratu eta taldekide guztiei bidali zitzaizkien berriro ere, adostasunak, desadostasunak eta ekarpenak jasotzeko asmoz. Erantzun-maila ez da nahi bezalakoa izan, baina etorkizuneko zenbait ildo identifikatzeko balio lezakeela uste dugu.

Jasotako erantzunak dokumentu batean bateratu eta taldekide guztiei bidali zitzaizkien berriro ere, adostasunak, desadostasunak eta ekarpenak jasotzeko asmoz

III. EDUKI NAGUSIAK

1. PROZESUAREN EMAITZAK

Prozesu honetan egindako lanari esker, amaieran zenbait produktu edo emaitza lortu ditugu: **egoeraren azterketa, editoreentzako inkesta, irakurzaletasuna neurtzeko inkesta eta Delphy teknikaren emaitzak**. Gai hauek sakontasun handiagoz aztertzen dira jarraian:

1.1. Egoeraren azterketa

Inkestak zer-nolako adierazleak izan beharko lituzkeen zehazten hasi aurretik, Mahai teknikoan egoeraren argazkia egin zen:

EKOIZPENA	
PRAKTIKAK	Ekoizpena ez da planifikatzen
	Ez dago ekoizpen-politika garbirik
	Idazkuntza gidatua: preskripzio-sistema
	Bi polo: argitaletxe handiek kontzentratzeko joera eta txikiak barreiatuta (merkatuari dagokionez)
	Kalitate-irizpideak findu egin dira (produktua)
	Ekoizpena egonkorta egin da, zerbaki jakin batzuetan mantentzen da
BEHARRAK	Lan-harremanen estandarizazio beharra
	Jatorrizko produkzioaren eta itzulpenaren arteko oreka hobeto ezagutu beharra
ARAZOAK	Argitalpen publikoaren hipertrofia. Argitalpen publikoaren kopurua eta merkaturatze-politika: inora ez doazen liburu-kopurua eta horien zirkulazioa
	Planifikaziorik ez
	Ekoizpen-politika garbirik ez dago
	Ekoizpen-zifrak eta industria-zifrak ez datoz bat
MERKATURATZEA	
BEHARRAK	Salmenta birtualen datuak ezagutu beharra
	Salmenta-katea ezagutu, batez ere ezaugarriak
ARAZOAK	Ez dugu asmatu sustapen-politika egiten, presentzia lortzen
	Banaketa-arazoak. Ezberdintasunak argitaletxeen artean
	Liburu-itzulketara arazo handia da
	Merkaturatze-sasoia: beste leku batzuetan merkaturatzeko sasoi bat baino gehiago dauzkate, baina hemen ez

Inkestak zer-nolako adierazleak izan beharko lituzkeen zehazten hasi aurretik, Mahai teknikoan egoeraren argazkia egin zen

ARLO EKONOMIKOA	
BEHARRAK	Diru-laguntzen eragina ezagutu
	Enpresa-aniztasuna. Enpresa desberdinak behar ditugu eskaria asetzera heldu ahal izateko
	Argitaletxeak estrategiak zehazterakoan zertan oinarritzen diren jakitea
ARAZOAK	Sektorearen ezaugarri ekonomikoak ezaugarri soziolinguistikoen arabera dira: <ul style="list-style-type: none"> • Tirada txikiak • Eskaintza ez oparoa • Dependentsia handiegia haur- eta gazte literaturarekiko
SUSTATZEA	
PRAKTIKAK	Komertzialek bisitak egiten dituzte produktua saltzeko, batez ere eskoletara
	Liburuen aurkezpenak egiten dira
	Komunikabideetan liburuen aurkezpenak egiten dira
	Katalogoak ateratzen dira
	Webak erabiltzen dira produktuen berri emateko
	Liburuak banatzen dira dendetan, merkataritza-zentroetan, azoketan...
	• Bertakoetan: Durango • Kanpokoetan: Frankfurt; eskubideak saldu eta erosteko gunea, eta Liber, esportatzeko gunea
	Haur-literaturan liburuak lantzeko fitxak erabiltzen dira
	Batez ere literatura sustatzen da
	Euskarazko liburugintzak lotura handia du hezkuntza sektorearekin
	Internet bidez gutxi saltzen da, kostuak ez dira konpetitiboak, liburuak eskuragarri ez dauden lekuetan bakarrik erabiltzen da
Sektoreak, oro har, gutxi jorratzen du marketina	
BEHARRAK	Irakurlearengana hobeto iristeko bideak landu behar dira <ul style="list-style-type: none"> • Irakurleen perfil eta beharrak identifikatu beharko lirateke eta horien arabera politikak zehaztu • Produktuak bereizi egin beharko lirateke
	Sustapena eskoletatik kanpo areagotu beharra dago
	Literaturaz gain, beste generoetan ere sustatze-lana egin behar da
	Euskal hedabide publikoetan euskarazko liburuaren presentzia bermatu beharko litzateke (kuota bat)
	Euskarazko liburuak ikusgai jarri beharko lirateke saltzeko guneetan
	Katalogo bateratuak beharko lirateke
	Euskaraz normaltasunez irakurtzeko gaitasun nahikorik ez duen euskaldunen multzo bat dago
ARAZOAK	Sektoreko enpresak gehienak txikiak dira, langile gutxiak, gehien bat eta ezin dute marketin handirik egin
	Euskal liburuak zailtasunak ditu kontsumitzaileengana iristeko
	Liburu-denda eta saltokietan euskarazko liburuak ez du kokapen egokia izaten
	Merkatua handitzea zaila da
	Erdarekiko lehia dago

Sektorearen argazkia egiteko kontuan hartu diren parametroak hauek izan dira: ekoizpena, merkaturatzea, arlo ekonomikoa, sustatzea, produktuaren harrera eta sektorearekin erlazionaturiko politika publikoak

HARRERA	
PRATIKAK	Emaitzak emaitza, eskola irakurzaletasuna sustatzen saiatzen da
	Liburuak (genero desberdinetakoak) erosten dira, saltoki, euskarri eta modu desberdinetan
	Erosi gabe ere, liburuak irakur daitezke liburutegietan, Interneten . . .
	Idazleak eskoletara joaten dira irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz
BEHARRAK	Itzulpengintza indartu beharko litzateke, euskarazko liburugintzak aukera handiagoak izan ditzan
	Irakurzaletasunaren eboluzioa ezagutu beharra dago
	Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko estrategiak landu behar dira
ARAZOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurzaletasunarekin lehiatzen diren hainbat aukera dago aisialdian • Aisialdia betetzeko beste medioen lehia dago
	Euskarazko gaitasunaren eta irakurzaletasunaren arteko harremana dago
	Liburu salmentak ez du gora egiten
	Beste hizkuntzen lehia dago
POLITIKA PUBLIKOAK	
PRAKTIKAK	Hezkuntza Sailak EIMA deialdia ateratzen du, testu-liburuentzako diru-laguntzak emateko
	Kultura Sailak: <ul style="list-style-type: none"> • Edizioaren deialdia. 300 liburu erosten ditu prezioaren %50ean • Itzulpengintzarako • Barneko liburu-azoketarako diru-laguntzak • Kanpoko liburu-azokak eta zenbait ekintza antolatzen • Euskadi Literatur Sariak antolatzen ditu
	Gipuzkoako Foru Aldundiak: <ul style="list-style-type: none"> • Liburuak erosi eta banatu egiten ditu • Testu-liburuak argitaratzen dituztenei diru-laguntzak
	Udalek: <ul style="list-style-type: none"> • Literatur sariak antolatzen dituzte
	Administrazioak argitaratu egiten du
BEHARRAK	Ezagutu egin beharko litzateke Administrazioak argitaratzen duenak zer eragin duen produkzio osoan
	Administrazioen liburugintzako politikak aztertu
	Politikak koordinatu, administrazioen artekoak eta administrazio eta liburugintzako eragileen artekoak

Aztertutako alderdi bakoitzeko informazioa hiru multzo handitan sailkatu da: hautemandako praktikak, beharrak eta oinarrizko arazoak

1.2. Editoreentzako inkesta

Mahai teknikoak euskarazko liburugintzako editoreentzako berariazko inkesta diseinatu zuen. Produktu berria eta garrantzitsua da. Izan ere, orain arte azterketa horiek gaztelaniazko inkestaren itzalean egin izan dira, orain, ordea, eragindakoen iritzia kontuan izanik, berariazko inkesta diseinatu da, liburugintzaren egoera objektiboki ezagutzeko balioko duena.

Behin inkesta definitutakoan, etorkizunera begira kontuan hartzeko zenbait alderdi azpimarratu ziren:

- Unibertsoa ondo zehaztu beharko litzateke, ISBN ezin baita izan erreferentzia bakarra.
- Baldintzak: gutxienez produkzioaren %70etik gorako datuak jaso beharko lirateke, eta argitaletxeen %70aren datuak.

Inkesta honen bidez, ondorengo adierazleen egoera jasoko litzateke:

Ekoizpena (16 adierazle)	
1	Argitaratutako izenburuak orotara, edizioak eta berredizioak bereiziz (balio absolutuak)
2	Argitaratutako izenburuak, liburu motaren arabera sailkatuta, edizioak eta berredizioak bereiziz (balio absolutuak)
3	Izenburuak eta aleak, editatuak izan ziren herrialdearen arabera sailkatuta (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria, Espainiako estatua, Espainiako estatutik kanpo) (balio absolutuak)
4	Izenburuak eta aleak, editatuak izan ziren herrialdearen arabera sailkatuta (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria, Espainiako estatua, Espainiako estatutik kanpo) (ehunekoak)
5	Argitaratutako izenburuak, argitaletxe-motaren arabera sailkatuta (argitaletxe pribatu komertziala, argitaratzaile publikoa, elkarteak eta abar, irakaskuntzako, besterik) (balio absolutuak)
6	Argitaratutako izenburuak, argitaletxe-motaren (argitaletxe pribatu komertziala, argitaratzaile publikoa, elkarteak eta abar, irakaskuntzako, besterik), edizioak eta berredizioak bereiziz (ehunekoak)
7	Argitaratutako izenburuak, argitaletxearen izenaren arabera, edizioak eta berredizioak bereiziz (balio absolutuak) (ehunekoak)
8	Argitaratutako izenburuak, argitaletxearen izenaren arabera, edizioak eta berredizioak bereiziz (ehunekoak)
9	Argitaratutako aleak orotara, edizioak eta berredizioak bereiziz (balio absolutuak)
10	Argitaratutako aleak, liburu-motaren arabera sailkatuta, edizioak eta berredizioak bereiziz (ehunekoak)
11	Katalogoan eskuragarri dauden izenburuak orotara (balio absolutua)
12	Katalogoan eskuragarri dauden izenburuak, liburu-motaren arabera sailkatuta (ehunekoak)
13	Edizioa beste euskarrietan (kaseteak eta diskoak, bideoak, CD-I /CD-Rom, DVD, diapositibak, mikroformak...) (balio absolutuak)
14	Edizioa beste euskarrietan (kaseteak eta diskoak, bideoak, CD-I /CD-Rom, DVD, diapositibak, mikroformak...) (ehunekoak)
15	Argitaratutako izenburuak, liburu-motaren eta jatorrizko lanaren hizkuntzaren arabera sailkatuta (ehunekoak)
16	Argitaratutako aleak, liburu-motaren eta jatorrizko lanaren hizkuntzaren arabera sailkatuta (ehunekoak)

Editoreentzako berariazko inkesta produktu berria eta garrantzitsua da. Izan ere, orain arte azterketa horiek gaztelaniazko inkestaren itzalean egin izan dira

Sustapena (4 adierazle)

1	Sustapenean inbertitutako dirua orotara (balio absolutua)
2	Sustapenean inbertitutako batez besteko dirua, enpresaren tamainaren arabera sailkatuta (balio absolutuak)
3	Sustapenean inbertitutako dirua, esparruaren arabera sailkatuta (ehunekoak)
4	Sustapenean inbertitutako batez besteko dirua, esparruaren eta enpresaren tamainaren arabera sailkatuta (ehunekoak)

Merkaturatzea eta alderdi ekonomikoa (25 adierazle)

1	Nominan dagoen enplegatu-kopurua, lan-jardueraren arabera sailkatuta (balio absolutuak)
2	Nominan dagoen enplegatu-kopurua, enpresaren tamainaren arabera tartekatuta, lan-jardueraren arabera sailkatuta (balio absolutuak)
3	Enpresa bakoitzeko nominan dagoen batez besteko enplegatu kopurua, lan-jardueraren arabera sailkatuta (balio absolutuak)
4	Enpresakoak ez diren lankide profesionalak, lan-jardueraren arabera sailkatuta (balio absolutuak)
5	Enpresakoak ez diren lankide profesionalak, enpresaren tamainaren arabera tartekatuta, lan-jardueraren arabera sailkatuta (balio absolutuak)
6	Enpresa bakoitzeko enpresakoak ez diren lankide profesionalen batez besteko enplegatu-kopurua, lan-jardueraren arabera sailkatuta (balio absolutuak)
7	Editore-elkarteetara kidetutako argitaletxeak (balio absolutuak)
8	Zein banatzailerekin egiten duten lan (ehunekoak)
9	Fakturazioa, orotara eta euskarazkoen fakturazioa bereiziz (euroak)
10	Euskarazko liburuen fakturazioaren zenbatekoa fakturazio osoarekiko (ehunekoak)
11	Fakturazioa, orotara eta euskarazkoen fakturazioa bereiziz eta liburu-motaren arabera bereiziz (ehunekoak)
12	Saldutako aleak, orotara eta euskarazkoen fakturazioa bereiziz (balio absolutuak)
13	Saldutako euskarazko aleen zenbatekoa salmenta osoarekiko (ehunekoak)
14	Salmenta, orotara eta euskarazkoen salmentak bereiziz eta liburu-motaren arabera bereiziz (ehunekoak)
15	Argitaratutako eta saldutako aleen arteko aldea (balio absolutuak)
16	Fakturazioa, merkaturatze-bidearen arabera sailkatuta (ikastetxei zuzenean, azokak eta feriak, liburudenda, liburu-denda kateak, hipermerkatuak, kioskoak, enpresak eta erakundeak, liburutegiak, argitaletxeak, kreditu bidezkoa, postaz, liburu-klubak, Internet, harpidetzak, telefono bidezkoa, besterik)(ehunekoak)
17	Fakturazioa, merkaturatze-bidearen eta liburu-motaren arabera sailkatuta (ehunekoak)
18	Salmenta, salmenta-puntuak kokatuta daudeneko herrialdearen arabera sailkatuta (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Ipar Euskal Herria, beste) (ehunekoak)
19	Salmenta, hiruhilabetearen arabera banatuta (ehunekoak)
20	Liburu-unitatearen salneurria, liburu-motaren arabera sailkatuta (euroak)

Delphy teknikari esker, indarguneak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak identifikatu ziren eta horien inguruan adostasun/desadostasun puntuak ere identifikatu ziren

Merkaturatzea eta alderdi ekonomikoa (25 adierazle) (Jarreipena)

21	Deboluzioak izan dituzten argitaletxeak (ehunekoak)
22	Deboluzioek suposatzen duten fakturazioaren zenbatekoa (euroak)
23	Deboluzioak, liburu-motaren eta deboluzioa egiten duenaren arabera sailkatuta (ehunekoak)
24	Eskubideengatik ordaindutakoa eta irabazitakoa, ordaindutako egile-eskubide (euskarazko, ez euskarazko, itzultzaile) eta beste eskubide batzuk bereiziz, batetik, eta, bestetik, eskubideen kudeaketagatik eta salmentagatik lortutako irabaziak bereiziz (euroak)
25	Diru-iturriak, salmenta, diru-laguntza (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, udalak eta beste bereiziz) (ehunekoak)

1.3. Iritzi-bilketa

Delphy teknikari esker, **indarguneak**, **ahuleziak**, **aukerak** eta **mehatxuak** identifikatu ziren eta horien inguruan adostasun/desadostasun puntuak ere identifikatu ziren.

Horrela, emaitza hauek, etorkizunera begira, zenbait arrasto edo ildo ezartzeko balio dute, hausnartzeko.

INDARGUNEAK

Euskarazko liburugintzaren barruko faktore positiboen identifikazioari dagokionez, hurrengo puntuak azpimarra daitezke, besteak beste:

- Haurrentzako (6-12 urte) produkzio-lan polita, Euskal Herria txikia izateak alor desberdinetako eragileen artean ematen duen gertutasuna, beharrak detektatzeko, idazle-argitaratzaileen arteko harremana errazteko, merkaturatzea ezagutzeko.
- Halaber, aipagarria da ikastetxeetako derrigorrezko irakurketak salmentetan duen eragin handia (baina, bestaldetik, derrigorrezko irakurketa hau ahulezia bezala uler daiteke, irakurketarekiko benetazko eraspenerako oztopoa izan daitekelako).
- Sektorearen profesionaltasuna areagotu egin da produzio-katearen begi guztietan.
- Bestaldetik, nabarmena da Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen bidez liburutegietara euskaraz argitaratzen den guztia iristen dela.

AHULEZIAK

- Parte-hartzaileek identifikatu dituzte hainbat ahulezia, azpimarratzekoak 10-12 urteko gaztetxoentzako produkzioa didaktikoegia dela eta gustuko gaien falta dagoela. Informazio-liburuetan, kontsulta-liburuetan, en-

Emaitza hauek, etorkizunera begira, zenbait arrasto edo ildo ezartzeko balio dute, hausnartzeko

tziklopedietan hutsunea dago euskaraz eta daudenak gaztelaniazko itzulpenak dira edo zaharkituak daude. Bestalde, CDrom didaktiko eta ordenagailuetako jokoetan ere eskaintza urria da.

- Diru-laguntzek ere eragiten dituzte ahuleziak, batetik beraiei esker edozer argitaratzen da, eta bestetik, liburutebietara argitaratzen den guztia batera iristen da eta ezagutzera emateko bidea zailtzen da horrela.
- Itzulpenari dagokionez, arrakasta izan duten liburuak ez dira sistematikoki itzultzen. Horregatik, literatura moderno eta komertziala irakurtzeko gaztelaniara jo behar da.
- Edizioaren arloaren inguruan, parte-hartzaileek edizioa atomizatuegia dela uste dute: gutxi asko egiten dute eta agente gehiegik liburu bat bakarrik argitaratzen du.
- Irakurleari dagokionez, oraindik ere gutxi dira euskaraz erraztasunez irakurtzen dutenak.
- Sektoreko eragileen arteko erlazioak konplexuak dira.

MEHATXUAK

- Liburugintzaren industria etekinen menpe dago eta honek eragiten du euskarazko liburugintza industriak ez arriskatzea. Erdal merkatuek euskarazkoa jateko arriskua dago, kanpoko argitaletxeek arlo ekonomikoa kulturala baino gehiago baloratzen baitute.
- Bestaldetik, gazte-helduentzako eskaintza urria, diru-laguntza publikoen menpekotasuna, instituzio publikoek argitaratzea...dira aipatutako zenbait mehatxu.

AUKERAK

- Atal honetan aipatu direnak ahuleziekin lotuta daude zuzenean. Beraz, aukerak honako hauek lirateke: irakurle gazteen gustoko gaiak argitaratzea, produkzioa gehiago dibertsifikatu, arlo asko dago oraindik lantzeko, Estatu-tuko beste nazionalitatekoekin harremanak gehiago landu eta liburu berdinak, hasieratik hizkuntza ezberdinetan argitaratu.
- Gainera, denda birtualen beharra, euskarri berriak erabiltzea, telebistan kultura-saio moderno eta erakargarriagoak bultzatzea (gaztediarentzako batez ere), gure liburugintza kanpora ateratzeari...buruz hitzegin da. Era berean, aukera gisa sektorearen barneko harremanen hobekuntza eta baterako lanaren sustapena nabarmendu dira.

NEURRIAK

- Kalitatea literaturan bermatu, gaur egungo "best-seller"-ak itzuli eta garaiz kaleratu, eskolako liburutegiak indartu, sendotu, antolatu, erabili, sektorean inplikaturik daudenak, harreman estuagoa beharko lukete eta ba-

Produktua gehiago dibertsifikatu behar litzateke eta, testu-liburuez eta haur-literaturaz gain, beste gai batzuk ere jorratu behar lirateke. Haur-gazteentzako eta helduentzako produkzioa zaindu behar litzateke. Gainera, uneko best-sellerrak euskaraz argitaratu behar lirateke; horrela irakurleak produktua gazteleraz irakurtzea lehenestea eragotziko litzateke

koitzak aportatzen duena kontuan izan, ondokoa etsaitzat hartu gabe, diru-laguntzen sistema aldatu beharra, banaketa eta liburu-dendak izan dezatela komertzio-erlotik laguntza gehiago modernizatzeko eta inbertitzeko, hainbeste argitaratu beharrean, produktua gehiago zaindu behar da, txikiaren konplexua gainditu...

- Azken batean, azterketa sakona egin behar da, eta euskal idazleen elkartea berriro birdefinitu beharra dago, luzera begirako plangintza estrategiko serio bat beharko litzateke, kanpainak eta azaleko kontuak behin eta betiko utzita.

ONDORIOAK

Adituen iritzia jaso ondoren, etorkizunera begira zenbait ondorio lortu dira:

- Produktua gehiago dibertsifikatu behar litzateke eta, testu-liburuez eta haur-literaturaz gain, beste gai batzuk ere jorratu behar lirateke. Haur-gazteentzako eta helduentzako produkzioa zaindu behar litzateke. Gainera, uneko best-sellerrak euskaraz argitaratu behar lirateke; horrela irakurleak produktua gazteleraz irakurtzea lehenestea eragotziko litzateke.
- Diru-laguntzen gaiak azterketa sakona eskatzen du: horiek liburugintzan duten eragina ezagutu ahal izateko eta horrela, beharrezkoak diren aldaketei ekiteko.
- Epe luzera plangintza estrategiko serio bat behar da, behin betiko alde batera utziz kanpaina hutsalak. Horretarako, euskarazko liburugintzaren sektoreko eragile guztien inplikazioa sustatu eta bideratu behar litzateke.
- Testu-liburuaren maileguaren gaia konpontzeko komenigarria litzateke, halaber, zuzenean inplikaturako eragileak ikuspegiak gerturatzea. Konponbide bat izan daiteke Liburuaren Lege bat eratzea; horren arabera, liburuaren prezioa finkoa izango litzateke, eta gainera, murrizketa librerik gabea. Izan ere, hori izango litzateke kulturaren aniztasuna bermatzeko bide bakarra.

1.4. Irakurzaletasuna neurtzeko inkesta

Egoeraren azterketa eratzeko, Mahai teknikoak zenbait adierazle landu zituen, hainbat esparrutan banatuta: Ekoizpena, Merkaturatzea, Sustapena, sektorearen alderdi ekonomikoa, politika publikoaren bilakaera eta harrera. Herreraren adierazleetatik abiatuz, hain zuzen, Elhuyar Aholkularitzak inkesta espezifikoa bat prestatu zuen: Euskarazko irakurzaletasuna neurtzeko inkesta.

Inkesta honen bidez, adierazle hauen berri jakingo dugu:

Epe luzera plangintza estrategiko serio bat behar da, behin betiko alde batera utziz kanpaina hutsalak. Horretarako, euskarazko liburugintzaren sektoreko eragile guztien inplikazioa sustatu eta bideratu behar litzateke

HARRERA

1. Euskara-gaitasuna
2. Irakurtzen diren aldizkari eta egunkarien hizkuntza
3. Liburuak irakurtzeko maiztasuna
4. Gutxi irakurtzeko arrazoiak
5. Irakurketa-orduak astean
6. Euskarazko irakurketa-ohiturak 15 urtetik beherakoen artean eta besteen artean
7. Liburu-kopurua etxean, eskolakoak salbu
8. Liburuak eskuratzeko modua
9. Urteko erosketak hizkuntza desberdinetan
10. Liburuak aukeratzeko erreferentziak
11. Liburuak aukeratzeko arrazoiak
12. Salneurriari buruzko iritzia
13. Liburuak erosteko lekuak/moduak eta arrazoiak
14. Urtean irakurritako liburu-kopurua
15. Liburuak irakurtzeko egun/garai aproposenak
16. Liburuak irakurtzeko lekurik aproposenak
17. Liburu-mota gustukoena
18. Nobela-mota gustukoena
19. Idazle gustukoena
20. Hizkuntza gustukoena, jatorrizkoa ala itzulpena
21. Euskal idazle gustukoena
22. Euskarazko liburu gustukoena
23. Irakurtzeko hizkuntzak
24. Euskaraz gehiago irakurtzeko moduak
25. Euskaraz irakurtzeko arrazoiak

Egoeraren azterketa eratzeko, Mahai teknikoak zenbait adierazle landu zituen, hainbat esparrutan banatuta: Ekoizpena, Merkaturatzea, Sustapena, sektorearen alderdi ekonomikoa, politika publikoaren bilakaera eta harrera

26. Irakurketa-ohituren eboluzioa
27. Liburutegira joateko maiztasuna
28. Interneten erabilera azken hilabetean
29. Interneten erabilera eta irakurketa ohiturak
30. Etxean dauzkaten liburuak, hizkuntzaren arabera
31. Euskarazko irakurleak, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera sailkatuta

Harreraren adierazleetatik abiatuz, Elhuyar Aholkularitzak inkesta espezifiko bat prestatu zuen: Euskarazko irakurzaletasuna neurtzeko inkesta



kulturabehatokia@ej-gv.es